

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

201/2014 FORU AGINDUA, martxoaren 18koa, 2013ko zergaldiko pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga eta aberastasunaren eta fortuna handien gaineko zerga autolikidatzeko ereduak onartu, eta aurkezpen eta ordainketa modu, epe eta tokiak arautzen dituena.

I

Aurreko urteetan bezala, 2013. urtea amaitzean pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergaldia itxi da, eta horrek zergaren sortzapena ekarri du abenduaren 31n. Eta beste urte horietan bezala, orain zergapekoei dagokie zerga hori likidatzea.

Aurtengo kanpaina, hala ere, berezia dugu berez. Izan ere, zergaldi honetan likidatuko da azkeneko aldiz zerga abenduaren 29ko 10/2006 Foru Arauan jasotakoaren arabera. Urtarrilaren 17ko 3/2014 Foru Araua, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergarena, onartu izanak berekin ekarri du bere aurrekoa izan den 10/2006 Foru Araua indargabetzea, eta horren ondorioz, datorren urteko kanpaina 3/2014 Foru Arau berrian xedatutakoren mende egingo da.

Bestalde, ekitaldiaren amaierak aberastasunaren eta fortuna handien gaineko zergaren sortzapena ere ekarri du berekin lehen aldiz, zerga hori abenduaren 18ko 10/2012 Foru Arauaren bidez onartu baitzen. Zerga hori ondarearen gaineko zerga ordeztara etorri da, zeina aplikagarri izan zen azken urteetan—2011ko eta 2012ko zergaldietan— abenduaren 26ko 6/2011 Foru Arauak arautu baitzuen.

Zerga berriaren autolikidazioa 714 eredu erabiliz egingo da, baina 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako, eredu hori aberastasunaren eta fortuna handien gaineko zergaren autolikidazio eredu izatera pasa da.

II

Esparru arautzaile aplikagarriari dagokionez, eta, lehen-lehenik pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari erreparatuta, aipatu beharra dago ezen, 2012ko zergaldian indarrean izan zenaren aldean, aldaketa garrantzitsuak sartu direla bai foru arauan eta bai erregelamenduan. Alde horretatik, nabarmentzekoa da aldaketak sartu direla honako xedapenak direla medio: Abenduaren 27ko 13/2012 Foru Araua, zerga alo-rreko zenbait aldaketa onartzen dituena, uztailaren 17ko 5/2013 Foru Araua, zerga iruzurraren aurkako neurriei, kredituak kobratzeko elkarren laguntzari eta zergen arloko beste aldaketa batzuei buruzkoa, eta otsailaren 26ko 7/2013 Foru Dekretua, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren erregelamendua jarduera ekonomikoen etekinen zenbatespenari buruzko alderdi jakin batzuei dagokienez aldatzen duena.

DIPUTACION FORAL DE GIPUZKOA

DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS

ORDEN FORAL 201/2014, de 18 de marzo, por la que se aprueban los modelos de autoliquidación del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas y del Impuesto sobre la Riqueza y las Grandes Fortunas correspondientes al período impositivo 2013, así como las formas, plazos y lugares de presentación e ingreso.

I

Al igual que en años anteriores, la finalización del año 2013 ha supuesto el cierre del período impositivo del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas y el consiguiente devengo del Impuesto, que con carácter general se produce el 31 de diciembre. Y como en años precedentes, corresponde ahora a los obligados tributarios liquidar este Impuesto.

La presente campaña, sin embargo, está investida de un carácter especial, toda vez que será el último período impositivo en el que el Impuesto se liquida con arreglo a lo previsto en la Norma Foral 10/2006, de 29 de diciembre. La aprobación de la Norma Foral 3/2014, de 17 de enero, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, ha supuesto la derogación de su antecesora, la citada Norma Foral 10/2006, de manera que la próxima campaña se realizará bajo la vigencia de la nueva Norma Foral 3/2014.

Por otra parte, la finalización del ejercicio ha supuesto también el devengo, por primera vez, del Impuesto sobre la Riqueza y las Grandes Fortunas, aprobado por la Norma Foral 10/2012, de 18 de diciembre. Este Impuesto ha venido a sustituir al Impuesto sobre el Patrimonio, que durante los últimos años de su aplicación, en los períodos impositivos 2011 y 2012, fue regulado a través de la Norma Foral 6/2011, de 26 de diciembre.

La autoliquidación del nuevo Impuesto se deberá realizar mediante el modelo 714, que para los períodos impositivos iniciados a partir del 1 de enero de 2013 pasa a ser el modelo de autoliquidación del Impuesto sobre la Riqueza y las Grandes Fortunas.

II

Por lo que respecta al marco regulatorio aplicable, y atendiendo, en primer lugar, al Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, señalar que se han introducido importantes modificaciones respecto al que estuvo vigente en el período impositivo 2012, tanto a nivel de norma foral como a nivel reglamentario. En este sentido, cabe destacar las modificaciones introducidas por las Normas Forales 13/2012, de 27 de diciembre, por la que se aprueban determinadas modificaciones tributarias, y 5/2013, de 17 de julio, de medidas de lucha contra el fraude fiscal, de asistencia mutua para el cobro de créditos y de otras modificaciones tributarias, así como por el Decreto Foral 7/2013, de 26 de febrero, por el que se modifica el Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas en determinados aspectos relacionados con la estimación de los rendimientos de actividades económicas.

Abenduaren 27ko 13/2012 Foru Arauari dagokionez, hauek dira aldaketa nagusiak:

— Deflaktatzen da oinarri likidagarri orokorrari aplikagarri zaion eskala, eta zenbateko hauek eguneratzen dira: Baterako tributazioaren murrizpenari dagokiona, kenkari orokorrarena, eta aurreko ahaideengatik, ondorengo ahaideengatik eta adinagatik aplikatzen diren kenkariena.

— Aldaketak sartzen dira aurrezpenaren oinarri likidagarria zergapetzeko eskalan, eta hiru tarte ezartzen dira, %21, %23 eta %25eko karga tasekin, hurrenez hurren.

— Nabarmen aldatzen da ondoren aipatzen diren sariei buruzko tributazio araubidea: Estatuko Loteria eta Apustuen Erakunde Nazionalak nahiz autonomia erkidegoetako organo edo entitateek antolatutako loteria eta apustuen sariak, Espainiako Gurutze Gorriak antolatutako zozketetatik eratorritakoak eta Espainiako Itsuen Erakunde Nazionalari baimendutako joko-modalitatetatik datozenak eta, azkenik, Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko beste erakunde eta entitateek ezarritako sariak. Aldaketa horiek honela gauzatzen dira:

* Aurrenik, 2013ko urtarrilaren 1etik aurrerako jokoetan lortutako sarien kasuan, ezabatu egiten da zergaren foru arauaren 9. artikuluan aurreikusita zegoen salbuespena. Egun horretatik aurrera, aipatutako sariek pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan tributatuko dute, 100eko 20ko karga berezi berriari lotuak.

* Karga berezia zergaren egitura arrunta alde batera utzita konfiguratzeko da. Horren ondorioz, sariak ez dira zerga oinarrian konputatzen eta atxikipenak ez du murrizten zergaren kuota likido osoa.

* Sari bakoitzeko 2.500 euroko salbuespena aplikatzen da gehienez, eta kopuru hori hainbanatu egiten da titulartasun partekatuko saria denean.

* Kargaren aplikazioak dakarren kuota osotik beti gutxituko dira sari horien gainean egindako atxikipenak edo konturako sarrerak.

Foru agindu honetan aurreikusitakoaren ondorioetarako, sari horien tributazio araubidean sartutako aldaketak behartzen du aitortzera bai karga bereziari lotutako saria eta bai haren gainean aplikatutako atxikipena edo kontura sarrera, halakorik izan bada.

— Orobat, aldaketak sartzen dira apirilaren 7ko 3/2004 Foru Arauan, irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga-pizgarriei buruzkoan. Hain zuzen ere, 100eko 10era jaisten da mezenasgo-entitateei dohaintzak eta ekarpenak egiteagatik aplikatzen den kenkaria.

Uztailaren 17ko 5/2013 Foru Arauari dagokionez, aldaketa hauek nabarmendu daitezke:

— Zuzeneko zenbatespenean dauden jarduera ekonomikoaren etekina zehaztean, mugatu egiten da gastu jakin batzuk kengarriak izatea, hala nola jatetxe, ostatu, bidai eta oparietakoak edo turismoko ibilgailuei, motozikletei eta antzekoei dagozkienak. Aldi berean, ezartzen da urriaren 29ko 7/2012 Legeak 7. artikuluan ezarri duen debekua, ordainketak esku-dirutan ezin egitekoa, betetzen ez duten eragiketen gastuak ez direla kengarriak izango.

— Zehazten da zer eragin izan dezakeen justifikatu gabeko ondare irabazien esparruan atzerriko ondasun eta eskubideei buruzko informazio betebeharra, zergen foru arau orokorraren hamaikagarren xedapen gehigarrian aurreikusia, epe barruan ez betetzeak.

Por lo que respecta a la Norma Foral 13/2012, de 27 de diciembre, las modificaciones más significativas son las siguientes:

— Se deflacta la escala aplicable a la base liquidable general, y se actualizan los importes de la reducción por tributación conjunta y de las deducciones general, por descendientes, por ascendientes y por edad.

— Se modifica la escala de tributación de la base liquidable del ahorro, estableciéndose tres tramos de tributación, y con tipos de gravamen del 21, 23 y 25 por 100 respectivamente.

— Se modifica sustancialmente el régimen de tributación de los premios de las loterías y apuestas organizadas por Loterías y Apuestas del Estado o por los órganos o entidades de las Comunidades Autónomas, de los sorteos de la Cruz Roja, y de los juegos de Organización Nacional de Ciegos, así como de los premios establecidos por organismos y entidades equivalentes en otros Estados miembros de la Unión Europea o del Espacio Económico Europeo. Dicha modificación se sustancia en los siguientes aspectos:

* En primer lugar, para premios derivados de juegos celebrados a partir del 1 de enero de 2013 se elimina la exención que estaba prevista en el artículo 9 de la Norma Foral del Impuesto. A partir de esa fecha, los citados premios tributarán en el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, sometidos a un nuevo gravamen especial del 20 por 100.

* El gravamen especial se configura al margen de la estructura ordinaria del Impuesto, de forma que ni el premio computa en la base imponible ni la retención minorará la cuota líquida total del Impuesto.

* Es de aplicación una exención máxima de 2.500 euros por premio, cuya cuantía se prorrateará cuando el premio sea de titularidad compartida.

* De la cuota íntegra resultante de la aplicación del gravamen se minorarán, en todo caso, las retenciones o ingresos a cuenta practicados sobre los mismos.

A los efectos de lo previsto en la presente Orden Foral, la modificación operada en el régimen de tributación de estos premios se traducirá en una obligación de declarar el premio obtenido sometido a gravamen especial y, en su caso, la retención o ingreso a cuenta a la que se haya visto sometido.

— Asimismo, se modifica la Norma Foral 3/2004, de 7 de abril, de Régimen fiscal de las entidades sin fines lucrativos y de los incentivos fiscales al mecenazgo, reduciendo al 10 por 100 la deducción aplicable a las donaciones y aportaciones realizadas a entidades de mecenazgo.

Por lo que respecta a la Norma Foral 5/2013, de 17 de julio, cabe destacar las siguientes modificaciones:

— En la determinación del rendimiento de actividades económicas en estimación directa se establecen límites a la deducibilidad de determinados gastos, tales como servicios de restauración, alojamiento, viajes y regalos, así como los relativos a automóviles de turismo, motocicletas y similares. Al mismo tiempo se establece la no deducibilidad de los gastos derivados de las operaciones en las que se incumpla la prohibición de pagos en efectivo establecida en el artículo 7 de la Ley 7/2012, de 29 de octubre.

— Se determina la incidencia que en el ámbito de las ganancias patrimoniales no justificadas pueda tener la no cumplimiento en plazo de la obligación de información sobre los bienes y derechos situados en el extranjero prevista en la disposición adicional undécima de la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria.

— Lanaren errentetan bezala, urteko 300.000 euroko muga ezartzen da kapital higiezinaren etekin irregularrak, jarduera ekonomikoen etekin irregularrak eta kapital higigarriaren etekin jakin batzuk integratzeari dagokionez, baldin eta etekin horiei ekitaldi bakoitzean 100eko 100etik beherako integrazio portzentaje bat aplikatzen bazaie.

— Aldatu egiten dira zerga oinarri orokorraren errentak integratu eta konpentsatzeko erregelak, eta ezartzen da zergadun baten jarduera ekonomikoen etekinak negatiboak izanez gero bakarrik konpentsatuko direla zergadun berak ondorengo lau ekitaldietan jarduera ekonomikoan lortutako etekin positiboekin.

— Ohiko etxebizitza alokatu zein erosteagatik aplikatzen diren kenkarietan, kenkariaren oinarritik gutxitzen dira zergadunak alokairua, birgaiketa edo erosketa ordaintzeko jasotzen dituen diru-laguntzak, zergaz salbuetsita daudenean.

Otsailaren 26ko 7/2013 Foru Dekretuak jarduera ekonomikoekin lotuta dauden zenbat alderdi aldatu ditu, batik bat, zenbatespen objektiboaren eremuan, baina baita zuzeneko zenbatespenaren modalitate erraztuan ere, jarraian zehazten den bezala:

— Mugatu egin da zenbatespen objektiboko zeinu, indize edo moduluen modalitatearen aplikazio eremua, eta horretarako murriztu dira jarduera bakoitzaren edo jarduera sektore bakoitzaren berariazko magnitudeak (langileak edo ibilgailuak) eta beste magnitude baztertzailer bat ezarri da, eragiketa bolumenean oinarritzen dena. Magnitude berriari dagokionez, modalitate hau 2013ko zergaldian aplikatu ahal izan dadin, ezinbestekoa da 2013an izandako eragiketa bolumenak 300.000 euro ez gainditzea.

— Zuzeneko zenbatespenaren modalitate erraztuaren barruan, erregela bereziak ezarri dira nekazaritza eta abeltzaintza jardueretan gastu kengarriak zehazteko.

Aipatzekoa da, bestalde, abenduaren 28ko 48/2012 Foru Dekretuak ezarrita utzi zuela zer eguneratze koefiziente aplikatu behar diren 2013an ondare irabazi eta galerak kalkulatzeko.

Zergaren araudiarekin bukatzeko, aipatu beharra dago otsailaren 26ko 223/2013 Foru Aginduak pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zenbatespen objektiboaren metodoko zeinu, indize edo moduluak finkatu zituela 2013ko zergaldirako. Foru agindu hori dugu gai hori arautuko duen azkena. Izan ere, gorago aipatu dugun 3/2014 Foru Arau berrian desagertu egin da jarduera ekonomikoen etekin garbia zehazteko metodo hori.

III

Aberastasunaren eta fortuna handien gaineko zergaren arau esparruari dagokionez, hauek dira bere lerro nagusiak:

— Zergaren xedea da pertsona fisikoen aberastasuna zergapetzea, betiere aberastasuna haien titulartasuneko eduki ekonomikoko ondasun eta eskubideen multzo gisa ulertuta, zorrak eta obligazioak kenduta.

— Zerga ordaintzeko bi obligazio bereizten ditu: Pertsonala eta erreala. Obligazio pertsonala lotuta dago Gipuzkoako pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadun izatearekin. Hala ere, ez-egoiliarak diren baina azken egoitza Gipuzkoan izan duten zergadunen kasuan, aukera ematen zaie Gipuzkoan obligazio pertsonalaren arabera tributatzeari hautatu

— Al igual que en las rentas del trabajo, se establece un límite de 300.000 euros anuales con respecto a la integración de los rendimientos irregulares de capital inmobiliario, de actividades económicas y de determinados rendimientos de capital mobiliario a los que en cada ejercicio se les aplique un porcentaje de integración inferior al 100 por 100.

— Se modifican las reglas de integración y compensación de rentas de la base imponible general, y se establece que de resultar negativos los rendimientos de actividades económicas de un contribuyente, sólo se compensarán con rendimientos de actividades económicas positivos del mismo contribuyente obtenidos en los cuatro ejercicios posteriores.

— En las deducciones por alquiler y por adquisición de vivienda habitual, la base de deducción se minora en el importe de las subvenciones percibidas por el contribuyente para sufragar el alquiler, la rehabilitación o la adquisición, que estén exentas del Impuesto.

El Decreto Foral 7/2013, de 26 de febrero, ha modificado aspectos relativos a las actividades económicas, en especial al ámbito de la estimación objetiva pero también a la modalidad simplificada del método de estimación directa, como se detalla a continuación:

— Se ha restringido el ámbito de aplicación de la modalidad de signos, índices o módulos del método de estimación objetiva, reduciendo las magnitudes específicas de cada actividad o sector de actividad (personas empleadas o vehículos) e introduciendo una nueva magnitud excluyente basada en el volumen de operaciones. Por lo que respecta a esta nueva magnitud, la aplicación de esta modalidad en el periodo impositivo 2013 se vincula a que no se haya superado un volumen de operaciones de 300.000 euros en el año 2012.

— Se han establecido reglas especiales de determinación de los gastos deducibles para las actividades agrícolas y ganaderas, dentro de la modalidad simplificada del método de estimación directa.

Apuntar, por otra parte, que el Decreto Foral 48/2012, de 28 de diciembre, establece los coeficientes de actualización aplicables en el ejercicio 2013 para la determinación de las ganancias y pérdidas patrimoniales en el Impuesto.

Para terminar con la materia regulatoria del Impuesto, señalar que la Orden Foral 223/2013 de 26 de febrero, ha establecido los signos, índices o módulos del método de estimación objetiva del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas aplicables durante el periodo impositivo 2013. Esta es la última orden foral que regulará esta materia, toda vez que dicho método de determinación del rendimiento neto de actividades económicas se ha suprimido en la nueva Norma Foral 3/2014 anteriormente citada.

III

Por lo que respecta al marco regulatorio del Impuesto sobre la Riqueza y las Grandes Fortunas, sus líneas maestras son las siguientes:

— Tiene por objeto la imposición sobre la riqueza de las personas físicas, entendida ésta como el conjunto de los bienes y derechos de contenido económico de las que sean titulares dichas personas, deducidas las deudas y obligaciones.

— Distingue entre las obligaciones personal y real de contribuir. En cuanto a la obligación personal, está vinculada al carácter de contribuyente del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas de Gipuzkoa, aunque se posibilita que contribuyentes no residentes, pero que hubieran tenido su última residencia en Gipuzkoa, puedan optar por tributar en Gipuzkoa

dezaten. Obligazio errealeari dagokionez, zergaduntzat hartzen dira Gipuzkoako lurraldean kokatutako ondasun eta eskubideen titularrak diren pertsona fisiko ez-egoiliarak, baldin eta, ondasun eta eskubide horien baliorik handiena euskal lurraldean egonik, Gipuzkoako lurralde historikoan kokatutako balioa beste lurralde historikoetako bakoitzean kokatutakoena baino handiagoa bada.

— Obligazio pertsonalean, zerga egitatea zergadunak mundu osoan duen aberastasunak eratzen du, eta, obligazio errealean, berriz, zergadunak estatu espainiarraren lurraldean dituen ondasun eta eskubideek. Horrez gain, zerga honetan salbuetsita dauden zenbait ondasun eta eskubide zehazten dira, hala nola ohiko etxebizitza, 300.000 euroraino gehienez.

— Jarduera ekonomikoei atxikitako elementuen kasuan eta entitate jakin batzuetako partaidetzei dagokionez, 100eko 75eko hobaria ezartzen da zergaren kuota osoan. Horren ondorioz, autolikidatzeko obligazioa zehazteko eta zerga oinarria kalkulatzeko garaian haien balioa hartu beharko da kontuan, eta aldi berean, ondare elementu horiei kuota osoan dagokien zerga oinarriak ere 100eko 75 hobaria izango du.

— Zerga oinarria eragiketa honetatik ateratzen den diferentzia izango da: Zergadunaren titulartasuneko ondasun eta eskubideen balioa (izaera errealeko zama eta kargen zenbatekoan gutxitua, ondasun edo eskubideen balioa murrizten dutenean) ken zergadunaren ardurapeko zorrak eta obligazio pertsonalak.

— Obligazio pertsonalean, oinarri likidagarria zehazteko, 700.000 euro murrizten da zerga oinarria, minimo salbuetsiaren kontzeptuan. Obligazio errealean kasuan, ondare likidagarria bat etortzen da zerga oinarriarekin, salbu eta frogatzen bada zergadunaren aberastasun osoa, bere ondare elementuak zer lurraldetan dauden kontuan hartu gabe, 700.000 eurotik beherakoa dela eta zergaduna ez dela egoiliarra paradisu fiskaltzat hartuta dauden edo Espainiako Erresumarekin informazio truke-rako akordioak izenpetu ez duten herrialdeetan.

— Zergaren tarifak lau tarte ditu, eta tasak 100eko 0,25etik 100eko 1era doaz. Nabarmendu beharra dago ezen tarifa horretaz gainera, zeinetan zerga tasak ondare zergarenak baino moderatuagoak baitira, zerga berrian ez dela aplikatzen ondarearen gaineko zergan ezarrita zegoen «babes fiskala» edo kuota osoaren muga.

— Sortzapena urte bakoitzeko abenduaren 31n gertatzen da.

— Azkenik, zerga berriaren esparru arautzailearekin bukatzeko, aipatzekoa da ezen obligazio pertsonalaren kasuan autolikidatzeko derrigorrezkoa dela kuota likidoa ordaintzekoa denean edo, horretara behartuta egon gabe ere, zergadunaren ondasun eta eskubideen balioa, salbuetsiak barne —zergaren arauak jarraituz zehaztua— 3 milioi eurotik gorakoa denean. Eta obligazio errealean kasuan, berriz, oinarri likidagarria 200.000 eurotik gorakoa denean.

IV

Bi ereduaren autolikidazioak aurkeztu eta ordaintzeko kudeaketari dagokionez, honako hau nabarmendu daiteke:

— Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga autolikidatzeko 109 ereduari dagokionez, mantentzen dira orain arteko hiru aurkezpen modalitateak: Autolikidazio proposamena, mekanizatua eta internet.

conforme a la obligación personal. Por lo que respecta a la obligación real, son contribuyentes las personas físicas no residentes que sean titulares de bienes y derechos que radiquen en territorio guipuzcoano, cuando, radicando en territorio vasco el mayor valor de dichos bienes y derechos, el valor de los que radiquen en el Territorio Histórico de Gipuzkoa sea superior al valor de los que radiquen en cada uno de los otros Territorios Históricos.

— El hecho imponible en la obligación personal lo constituye la riqueza mundial del contribuyente, y en la obligación real los bienes y derechos del contribuyente que radiquen en territorio del Estado español. Además, se establece una serie de bienes y derechos que se encuentran exentos de tributación por el Impuesto, entre los que cabe destacar la vivienda habitual, hasta un importe máximo de 300.000 euros.

— Por lo que respecta a los elementos afectos a actividades económicas y a las participaciones en determinadas entidades, existe una bonificación del 75 por 100 en la cuota íntegra del Impuesto, de manera que se deberá considerar el valor de los mismos a la hora de determinar la obligación de autoliquidar y de calcular la base imponible y la cuota íntegra correspondiente y, a su vez, se bonificará en un 75 por 100 la cuota íntegra proporcional a la base imponible que corresponde a estos elementos patrimoniales.

— La base imponible se calcula por diferencia entre el valor de los bienes y derechos de que sea titular el contribuyente (minorado en el importe de las cargas y gravámenes de naturaleza real cuando disminuyan el valor de los respectivos bienes o derechos) y las deudas y obligaciones personales de las que deba responder el contribuyente.

— En obligación personal, la base liquidable resulta de reducir 700.000 euros de la base imponible, en concepto de mínimo exento. En obligación real, la base liquidable coincide con la base imponible, salvo en los casos en que se acredite que la totalidad de la riqueza del contribuyente, con independencia del territorio donde radiquen sus elementos patrimoniales, es inferior a 700.000 euros, y que no reside en países calificados como paraísos fiscales, o que carezcan de un acuerdo de intercambio de información con el Reino de España.

— La tarifa del Impuesto se compone de cuatro tramos, con unos tipos que van desde el 0,25 al 1 por 100. Apuntar que esta tarifa, con tipos impositivos más moderados respecto a los que se establecían en el Impuesto sobre el Patrimonio, va acompañada de la no aplicación del «escudo fiscal» o límite a la cuota íntegra que se establecía en el Impuesto sobre el Patrimonio.

— El devengo es a 31 de diciembre de cada año.

— Por último, para terminar con el marco regulatorio del nuevo Impuesto, en obligación personal existe obligación de autoliquidar cuando la cuota líquida resulte a ingresar o, en ausencia de dicha obligación, el valor de los bienes y derechos del contribuyente, incluidos los exentos, y determinado de acuerdo con las normas reguladoras del Impuesto, resulte superior a 3 millones de euros. Y en obligación real cuando la base liquidable resulte superior a 200.000 euros.

IV

Por lo que respecta a aspectos de la gestión de la presentación e ingreso de las autoliquidaciones de ambos modelos, cabe señalar lo siguiente:

— Por lo que al modelo 109 de autoliquidación del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas se refiere, se mantienen las tres modalidades de presentación: Propuesta de autoliquidación, mecanizada e internet.

— Berrikuntza autolikidazio proposamenetan aurkitzen dugu, bidaltzen den proposamena aldatzeko aukerak handitzen direlako. Zehazki, mezenasgoaren aldeko dohaintzengatik eta sindikatuen aldeko kuotengatik aplikatutako kenkariaren datuak aldatzeaz gainera —aukera hori iazko kanpainan ezarri zen lehen aldiz—, orain posible da ohiko etxebizitzaren alokairuari dago-kion kenkariaren datuak sartzea eta etxebizitzak laga eta erren-tan emateagatik lortzen diren kapital higiezinaren etekinak aldatzea. Iaz bezala, aldaketa horiek egiteko, ez da beharrezkoa egindako aldaketen frogagiriak aurkeztea, geroago eskatu badaitezke ere.

— 714 ereduari dagokionez, aurtan ere iazko eran baino ezin da aurkeztu, Internet bidez alegia.

— Identitatea frogatzeko bideak, hala 109 ereduaren nola 714 ereduaren, iazko kanpainako berberak dira.

109 ereduaren kasuan, identitatea frogatu daiteke sinadura elektronikoko balioztatua, pasahitz operatiboa eta kontraste datua erabilia; 714 ereduaren kasuan, berriz, sinadura elektronikoko balioztatua eta pasahitz operatiboa baino ezin dira erabili. Orobat, ez dira aldatzen ez aurkezpen telematikoko prozedurak ez aurkeztutako aitortpenari dokumentazioa erantsi beharreko kasuak ere. Horri dagokionez, aipatzekoa da aurtan ere ez dela beharrezkoa 714 ereduari inolako dokumentaziorik aurkeztea, eta 109 ereduaren berrikuntza gisa ezarri da 14 urtetik gorako ondorengo ahaideak daudenean haien nortasun agiri nazionala aurkeztu beharra dagoela.

— Bi zergen autolikidazioak ordaintzeko erari dagokionez, berrikuntza nagusia da sistema alternatibo bat ezarri dela auto-likidaziotik ateratzen den kuota ordaintzeko. Horrela, ordain-keta helbideratze bankarioz ez ezik, orain arte bezala, Ordainketa-Pasabidearen bitartez ere egin ahal izango da, betiere abenduaren 11ko 1074/2008 Foru Aginduak, Gipuzkoako Foru Aldundiko zuzenbide publikoko diru-sarrerak Ordainketa-Pasabidearen bitartez ordaintzea arautzen duenak, aurreikusitakoari jarraikiz. Dena den, komeni da kontuan izatea ezen, Ordainketa-Pasabidea erabilia ere, autolikidazioak aurkeztzen direnean nahitaezkoa dela helbideratze bankarioko kontuaren datuak betetzea. Autolikidazioa behin igorri ondoren egin ahal izango da diru-sarrera Ordainketa-Pasabidearen bitartez, betiere foru aginduak karguak helbideratze-kontuan egiteko ezartzen dituen epeak amaitu baino lehen.

Horiek horrela, hau.

XEDATZEN DUT

I. KAPITULUA

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga

1. artikulua. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga-ren 2013ko autolikidazioa egiteko 109 ereduaren onartzea.

Onarturik geratzen da 2013ko zergaldiari dagokion 109 ere-dua, «Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren autoliki-dazioa» izenekoa. Foru agindu honetako I. eranskinean jasotzen dira bitarteko elektronikoz eta fitxategi bidez aurkeztzen diren autolikidazioen diseinu logikoak.

— La novedad en este aspecto se centra en las propuestas de autoliquidación, al ampliarse las posibilidades de modificar la propuesta que se haya remitido. Concretamente, a la posibi-lidad de modificar los datos relativos a las deducciones por mecenazgo y por cuotas satisfechas a sindicatos que se habilitó en la campaña anterior, se añade la posibilidad de incluir datos relativos a la deducción por alquiler de vivienda habitual y de modificar el apartado relativo a rendimientos del capital inmo-biliario derivados de cesiones y arrendamientos de vivienda. Al igual que en el pasado año, estas modificaciones no precisan aportar justificación de los cambios realizados, sin perjuicio de que pueda ser requerida posteriormente.

— Por lo que respecta al modelo 714 continúa pudiendo presentarse únicamente por Internet, al igual que el pasado año.

— Se mantienen los mismos medios de acreditación de la identidad que en la campaña anterior, tanto en lo que respecta al modelo 109 como al modelo 714.

En el modelo 109 la acreditación se podrá realizar por firma electrónica reconocida, por clave operativa y por dato de con-traste, y en el modelo 714 únicamente por firma electrónica reconocida y por clave operativa. Tampoco sufren variaciones los procedimientos de presentación por vía telemática de los modelos, ni los supuestos en los que es obligatorio adjuntar documentación a la declaración presentada. A este respecto, mencionar que continúa sin ser necesario adjuntar documenta-ción alguna al presentar el modelo 714, y resaltar que en el modelo 109 se establece, de forma novedosa, la obligación de adjuntar el documento nacional de identidad de los descendien-tes mayores de 14 años.

— Por lo que respecta al ingreso de las autoliquidaciones de ambos impuestos, la principal novedad alude al establecimiento de un sistema alternativo de ingreso de la cuota resultante de la autoliquidación, en virtud del cual el ingreso se podrá realizar no solo a través de domiciliario bancaria, como hasta ahora, sino también a través de la Pasarela de Pagos, con arreglo a lo previsto en la Orden Foral 1074/2008, de 11 de diciembre, por la que se regula el pago de ingresos de derecho público de la Diputación Foral de Gipuzkoa a través de la Pasarela de Pagos. Conviene resaltar que sin perjuicio de la posible utilización de la Pasarela de Pagos, al presentar las autoliquidaciones es obli-gatorio cumplimentar los datos de la cuenta de domiciliación bancaria. El ingreso a través de la Pasarela de Pagos se podrá efectuar una vez transmitida la autoliquidación y con anteriori-dad a las fechas de cargo en la cuenta de domiciliación que se establecen en la Orden Foral.

En su virtud,

DISPONGO

CAPÍTULO I

Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas

Artículo 1. Aprobación del modelo 109 de autoliquida-ción del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, correspondiente al periodo impositivo de 2013.

Se aprueba el modelo 109 «Autoliquidación del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas», correspondiente al periodo impositivo de 2013, cuyos diseños lógicos, a los que deberán ajustarse las autoliquidaciones presentadas por medios electrónicos a través de fichero, se incluyen como anexo I de la presente Orden Foral.

2. artikulua. 109 eredua aurkezteko modalitateak.

Bat. 2013ko zergaldiko «Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren autolikidazioa» aurkezteko erabili behar den 109 ereduak hiru aurkezpen modalitate ditu: Autolikidazio proposamena, mekanizatua eta internet.

A) Autolikidazio proposamena.

1. Ogasun Zuzendaritza Nagusitik autolikidazio proposamena jasotzen duten zergadunek erabili dezakete modalitate hau, betiere abenduaren 29ko 10/2006 Foru Arauak (aurrerantzean zergaren foru arauak) 105. artikuluan jasotakoaren arabera eta abenduaren 18ko 137/2007 Foru Dekretuaren bidez onartutako zergaren erregelamenduak (aurrerantzean zergaren erregelamenduak) 79. artikuluan ezarritakoari jarraikiz bidalitakoa bada.

2. Proposamenari adostasuna emateko edo hura aldatzeko, zergadunak ondorengo 3. zenbakian zehazten denari jarraitu behar dio, proposamenean adierazten den telefono zenbakira deituz (902 100 040) edo, bestela, bide telematikoa erabiliz.

Adostasuna edo aldaketa telefonoz adierazten bada, proposamenean agertuko den kontraste datua adierazi beharko da.

Aldiz, adostasuna edo aldaketa bide telematikoz adierazteko, modu hauetako batean jokatu ahal izango da:

a) Proposamenean jasotako kontraste datua erabilita. Horretarako, Ogasun eta Finantza Departamentuko web atarian prestatutako zerbitzuan sartu behar da. Proposamena berresteko edo aldatzeko prozesuan zehar, aplikazioak kontraste datua eskatuko dio erabiltzaileari.

b) Sinadura elektronikoko balioztatua edo pasahitz operatiboa erabilita, irailaren 12ko 40/2006 Foru Dekretuak, Zerga Administrazioaren aurrean egitekoak diren jarduketetan identitatea eta ordezkaritza nola frogatu arautzekoak, 2.2 artikuluan xedatutakoari jarraikiz. Horretarako, erabiltzaileak Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoko kokatutako «Gipuzkoataria» tramite eta zerbitzu telematikoen atarian sartu behar du (<https://www.gfaegoitza.net>), eta, behin identitatea Zerga arloko zenbait tramite bide elektronikoz egiteko obligazioa arautzen duen azaroaren 24ko 1011/2010 Foru Aginduak 3. artikuluan jasotako prozedurari jarraituz frogatuta, proposamenaren berrespena edo aldaketa tramitatu behar du.

Behin proposamena berretsita edo aldatuta, aurkeztutako autolikidaziotzat hartuko da.

3. Zergadunak erreparatzen badu bere zerga egoerarekin ez datozela bat, proposameneko datu hauek aldatu ahal izango ditu:

a) Kapital higiezinaren etekinak, aurrezpenaren errenta direnean.

b) Kenkari hauen datuak:

a') Ohiko etxebizitza errentan hartzea.

b') Mezenasgoa.

c') Langileen sindikatuei ordaindutako kuotak.

Apartatu honetan apatzen diren aldagetak egiteko, ez da beharrezkoa egindako aldaketen frogagiririk aurkeztea, baina horrek ez du eragozten zerga Administrazioak frogagiri horiek edozein unetan eskatzea zergadunari.

Artículo 2. Modalidades de presentación del modelo 109.

Uno. El modelo 109 «Autoliquidación del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas» correspondiente al periodo impositivo de 2013, se presentará con arreglo a alguna de las modalidades siguientes: Propuesta de autoliquidación, mecanizada e internet.

A) Propuesta de autoliquidación.

1. Podrán acogerse a esta modalidad aquellos contribuyentes a los que la Dirección General de Hacienda remita una propuesta de autoliquidación, de acuerdo con lo previsto en el artículo 105 de la Norma Foral 10/2006, de 29 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas (en adelante Norma Foral del Impuesto) y en el artículo 79 del Reglamento del Impuesto, aprobado por el Decreto Foral 137/2007, de 18 de diciembre (en adelante Reglamento del Impuesto).

2. El contribuyente podrá manifestar su conformidad a la propuesta o su modificación en los términos previstos en el número 3 siguiente, bien por vía telefónica, llamando al número que se indique en la citada propuesta (902 100 040), bien por vía telemática.

Si dicha manifestación se realiza por vía telefónica, será necesario facilitar el dato de contraste que constará en la propuesta remitida.

La manifestación por vía telemática, por su parte, se podrá realizar de alguna de las siguientes maneras:

a) Mediante el uso del dato de contraste que constará en la citada propuesta. Para ello será necesario acceder al servicio habilitado al efecto en el portal web del Departamento de Hacienda y Finanzas. En el transcurso del proceso de confirmación o modificación, la aplicación requerirá al usuario el dato de contraste.

b) Mediante el uso de la firma electrónica reconocida o de la clave operativa a las que se alude en el artículo 2.2 del Decreto Foral 40/2006, de 12 de setiembre, por el que se regula la acreditación de la identidad y la representación en las actuaciones ante la Administración Foral. Para ello el usuario deberá acceder al portal de trámites y servicios telemáticos «Gipuzkoataria», ubicado en la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa <https://www.gfaegoitza.net>, y una vez acreditada la identidad con arreglo al procedimiento previsto en el artículo 3 de la Orden Foral 1011/2010, de 24 de noviembre, por la que se regula la obligación de efectuar determinados trámites de carácter tributario por vía electrónica, proceder a tramitar la confirmación o modificación de la propuesta.

Una vez confirmada o modificada la propuesta, ésta adquirirá la consideración de autoliquidación presentada.

3. Cuando observe que no se ajustan a su situación tributaria, el contribuyente podrá modificar los siguientes apartados de la propuesta:

a) Los relativos a los rendimientos del capital inmobiliario que constituyen renta del ahorro.

b) Los relativos a las siguientes deducciones:

a') Por alquiler de vivienda habitual.

b') Por mecenazgo.

c') Por cuotas satisfechas a sindicatos de trabajadores.

La realización de las rectificaciones recogidas en este apartado no exige aportar justificación de los cambios realizados, sin perjuicio de la potestad de la Administración tributaria para requerir al contribuyente, en cualquier momento posterior, la presentación de la documentación que las justifique.

4. Zergadunak ez badu adierazten, ezarrita dagoen epean, bidalitako edo aldatutako proposamenarekin ados dagoela, jarduketa administratiboa ez dela egin joko da, eta zergadunak artikulua honetan ezartzen diren beste modalitateetako bat erabiliz aurkeztu beharko du autoliquidazioa, betiere horretara behartuta badago.

B) Mekanizatua.

1. Autoliquidazioa modalitate mekanizatuan egiteko, zergadunek Ogasun eta Finantza Departamentuak hura aurkezteko eratuak dituen bulegoetako langileen laguntza izango dute. Bulego horiek foru agindu honen 5. artikuluan aurreikusitakoak dira.

Beren sarrerak zergaren foru arauak 6. artikuluan aipatzen dituen errentetatik datozenen erabili dezakete zergadunek modalitate mekanizatua, honako hauek izan ezik:

— Jarduera ekonomikoen etekina kalkulatzeko zuzeneko zenbatespen arruntaren metodoa erabiltzen duten zergadunek. Era berean, zergadunek ezin izango dute autoliquidazio mekanizatua modalitatea erabili jarduera ekonomikoen etekina zuzeneko zenbatespen erraztuaren bidez kalkulatzeko badute eta zergaren foru arauak 91. artikuluan jasotako kenkarietara bilduta badaude.

— 6. artikulua horren 2. apartatuko e) letran aipatzen diren errentak lortzen dituzten zergadunek.

— Eskualdaketen ondorioz ondare irabazi edo galerak izan dituzten zergadunek, zergaldiaren barruan egindako eskualdaketen zenbateko osoa 100.000 eurotik gorakoa izan denean.

— Zergaldiaren barruan hamar ondare eskualdaketa baino gehiago egin dituzten zergadunek.

2. Modalitate mekanizatua aukeratzen duten zergadunek autoliquidazioa oinarritzen duten frogagiriak bakarrik aurkeztu beharko dituzte horretarako prestatutako bulegoetan. Foru agindu honen 7. artikuluan zehazten da zeintzuk diren frogagiri horiek.

Aurrekoa eragotzi gabe, jarduera ekonomikoengatik errentak lortu eta haien etekin garbia zenbatespen objektiboaren edo zuzeneko zenbatespen erraztuaren bidez kalkulatzeko duten zergadunek behar bezala beteta aurkeztu behar dute 109 ereduaren 5. edo 6. eranskina, dagokionaren arabera. Eranskin horiek II. eranskin gisa ageri dira foru agindu honetan. Aipatutako eranskinak Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikotik inprima daitezke (<https://www.gfaegoitza.net>), baita Ogasun eta Finantza Departamentuaren webgune ofizialetik (<http://www.gipuzkoa.net/ogasuna/renta>) edo apartatu hone-tako hurrengo C) letraren 2. apartatuan aipatzen den laguntza programatik ere.

C) Internet.

1. Zergadunek autoliquidazioa internet bidez aurkeztu behar dute «autoliquidazio proposamena» edo modalitate mekanizatua aukeratu ezin dutenean edo, modalitate horiek aukeratzeko moduan egonik, haiek ez aukeratzeko erabakitzen dutenean.

2. Internet bidezko modalitatean, fitxategi elektronikoak bide telematikoz bidaltzea aurkeztu behar da autoliquidazioa, eta fitxategi horiek bete behar dira foru agindu honetako I. eranskinean ageri diren diseinu fisiko eta logikoen arabera.

4. Si el contribuyente no presta su conformidad a la propuesta remitida o la modifica en el plazo establecido para ello, se tendrá por no efectuada la actuación administrativa, quedando el contribuyente obligado a presentar, en el supuesto de que tenga este deber, la autoliquidación en alguna de las otras modalidades que se establecen en este artículo.

B) Mekanizada.

1. Para la confección de la autoliquidación en la modalidad mecanizada, los contribuyentes estarán asistidos por el personal de las oficinas del Departamento de Hacienda y Finanzas previstas en el artículo 5 de esta Orden Foral para su presentación.

Podrán acogerse a la modalidad mecanizada los contribuyentes cuyos ingresos provengan de cualesquiera tipos de renta de los previstos en el artículo 6 de la Norma Foral del Impuesto, con excepción de los siguientes supuestos:

— Los contribuyentes que determinen el rendimiento de las actividades económicas mediante el método de estimación directa normal. Así mismo, no podrán acogerse a la modalidad mecanizada de autoliquidación los que, determinando el rendimiento de las actividades económicas mediante el método de estimación directa simplificada, se acojan a las deducciones previstas en el artículo 91 de la Norma Foral del Impuesto.

— Los contribuyentes que obtengan rentas de las previstas en la letra e) del apartado 2 del referido artículo 6.

— Los contribuyentes que hayan tenido ganancias o pérdidas patrimoniales por transmisiones, cuando el importe global de las transmisiones, durante el período impositivo, supere los 100.000 euros.

— Los contribuyentes que realicen transmisiones patrimoniales durante el período impositivo, en número superior a diez.

2. Los contribuyentes que se acojan a la modalidad mecanizada, únicamente deberán presentar en las oficinas habilitadas al efecto los documentos de prueba en base a los cuales se confecciona la autoliquidación; documentos que se relacionan en el artículo 7 de la presente Orden Foral.

Sin perjuicio de lo anterior, los contribuyentes que hayan obtenido rentas procedentes de actividades económicas y calculen el rendimiento neto de las mismas por los métodos de estimación objetiva o estimación directa simplificada, deberán presentar debidamente cumplimentados los respectivos anexos 5 y 6, según corresponda, del modelo 109, que se adjuntan como anexo II de la presente Orden Foral. Los citados anexos 5 y 6 se podrán imprimir desde la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa ubicada en la dirección <https://www.gfaegoitza.net> o desde la página web oficial del Departamento de Hacienda y Finanzas, en la dirección <http://www.gipuzkoa.net/ogasuna/renta>, así como desde el programa de ayuda al que se refiere el apartado 2 de la letra C) siguiente de este apartado.

C) Internet.

1. Deberán presentar autoliquidación en la modalidad internet aquellos contribuyentes que no puedan optar por las modalidades «propuesta de autoliquidación» y mecanizada o aquellos otros que pudiendo optar no lo hagan.

2. La autoliquidación en su modalidad internet deberá presentarse mediante la transmisión telemática por Internet de los ficheros electrónicos confeccionados con arreglo a los diseños físicos y lógicos que figuran como anexo I de la presente Orden Foral.

Ogasun eta Finantza Departamentuak zergadunen eta euren ordezkarien esku jarriko du autoliquidazioa egin eta, hala badagokio, bidaltzeko erabil daitekeen laguntza programa. Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikotik jaitsi ahal izango da (<http://www.gfaegoitza.net>), bai eta Ogasun eta Finantza Departamentuaren web ofizialetik ere (<http://Gipuzkoa.net/ogasuna/errenta>).

Internet bidezko modalitatean, autoliquidazioak foru agindu honen III. kapituluaren jasotako prozedurei jarraiki aurkeztuko dira.

Bi. Aurrekoa gorabehera, lehenago aipatutako azaroaren 24ko 1011/2010 Foru Aginduak 1. artikularen 4. apartatuan ezarritakoari jarraiki, jarduera ekonomikoak egiten dituzten zergapekoek aurreko lehen ekitaldiagatik Gipuzkoako Foru Aldundian aurkeztutako 190 ereduaren 5 jasotzaile edo gehiago zerrendatu badituzte haiei lan etekinak ordaintzeagatik, nahiz eta pertsona horietakoren bat lanaldi osoz kontratatua ez izan, internet bidez aurkeztu behar dute autoliquidazioa.

Orobat, ordezkari «profesionalak», hau da, zergadunari zerga alorrean kudeaketa zerbitzuak eskaintzen dizkieten pertsona natural edo juridikoak autoliquidazioak aurkezteko behar bezala baimenduta badaude irailaren 12ko 40/2006 Foru Dekretuak, Foru Administrazioarekin egitekoak diren jarduketan identitatea eta ordezkaritza nola frogatu arautzekoak, jasotakoa betez, behartuta daude autoliquidazioak internet bidez aurkeztzea lehen aipatutako 1011/2010 Foru Aginduak 1. artikularen 1. apartatuan xedatutakoaren arabera.

Hiru. Autoliquidazioa modalitateetako batean aurkezteak gainerako aurkezpen moduak baztertzea dakar.

3. artikulua. 109 eredua aurkeztera behartutakoak.

Bat. 2013. urtean zergaren foru arauaren 6. artikuluan aipatzen diren errentak lortu dituzten zergadunak daude behartuta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren autoliquidazioa aurkeztera, betiere jarraian zehazten diren muga eta baldintzen barruan:

1.a Zergadunak ez daude behartuta autoliquidazioa aurkeztera, lortu dituzten errenten jatorria honako hau bakarrik denean:

a) Lanaren etekin gordinak, 12.000 euroko mugarekin urtean banakako tributazioan, ondorengo 2. puntuko h) letran jasotako kasuetako batean sartuta daudenean izan ezik. Baterako tributazioan, muga hori etekin mota hau lortzen duen zergadun bakoitzari aplikatuko zaio.

b) 12.000 eurotik gorako eta 20.000 euro bitarteko lan etekin gordinak urtean, banaka aitortzekotan, ondorengo 2. puntuko kasuetako batean sartuta daudenean izan ezik. Baterako tributazioan, muga hori etekin mota hau lortzen duen zergadun bakoitzari aplikatuko zaio.

c) Kapitalaren etekin gordinak eta ondare irabaziak, salbuetsitakoak barne bi kasuetan, batera hartuta haien urteko kopurua 1.600 eurokoa baino handiagoa ez bada.

2.a Aurreko 1. puntuko b) letran jasotako kasuetan, honako hauek egongo dira zergaren autoliquidazioa aurkeztera behartuta:

El Departamento de Hacienda y Finanzas pondrá a disposición de los contribuyentes y de sus representantes el programa de ayuda para la confección y, en su caso, transmisión de la autoliquidación, que se podrá obtener en la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa ubicada en la dirección <https://www.gfaegoitza.net> o en la página web oficial del Departamento de Hacienda y Finanzas, en la dirección <http://www.gipuzkoa.net/ogasuna/renta>.

La presentación de las autoliquidaciones en la modalidad internet se realizará con arreglo a los procedimientos previstos en el capítulo III de la presente Orden Foral.

Dos. No obstante lo anterior, con arreglo a lo previsto en el apartado 4 del artículo 1 de la Orden Foral 1011/2010, de 24 de noviembre, mencionada anteriormente, los obligados tributarios que realicen actividades económicas y que hayan relacionado en el modelo 190, presentado en la Diputación Foral de Gipuzkoa correspondiente al ejercicio inmediato anterior, 5 o más perceptores por haberles efectuado abonos en concepto de rendimientos de trabajo, aún cuando alguna de dichas personas no hubiera estado contratada a jornada completa, deberán presentar la autoliquidación en la modalidad internet.

Asimismo, los representantes «profesionales», esto es, las personas naturales o jurídicas que presten servicios de gestión en materia tributaria al contribuyente y que hayan sido debidamente autorizadas para la presentación de autoliquidaciones, de conformidad con lo dispuesto en el Decreto Foral 40/2006, de 12 de setiembre, por el que se regula la acreditación de la identidad y la representación en las actuaciones ante la Administración Foral, estarán obligados a presentar todas las autoliquidaciones en la modalidad internet, de acuerdo con lo previsto en el apartado 1 del artículo 1 de la Orden Foral 1011/2010 antes citada.

Tres. La presentación de la autoliquidación en una de las modalidades previstas determinará la exclusión de los demás modos de presentación.

Artículo 3. Obligados a presentar el modelo 109.

Uno. Están obligados a autoliquidar el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas aquellos contribuyentes que durante el año 2013 hayan obtenido rentas de las incluidas en el artículo 6 de la Norma Foral del Impuesto, con los límites y condiciones que se relacionan a continuación:

1.º No estarán obligados a autoliquidar los contribuyentes que obtengan rentas procedentes exclusivamente de las siguientes fuentes:

